

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anjel Azkarate-Askasua Lamariano

*Bergara,
Gipuzkoa
(1928)*

Aurkibidea



Biografia



Bidekurutzeta kalean jaio zen. Aita "Beittibar" (Beretzibar) baserrikoa zen, eta ama, berriz, antzuolarra. Hiru urtetik hamarrera Antzuolan bizi izan zen Anjel. Antzuolako maristetan eta Bergarako bai marianista eta bai dominikoekin (seminarioan) ikasi zuen. Hamasei urterekin "Banco de Vizcaya"n ekin zion lanean. Bankuaren Soroluzeko bulegora bidali zuten, eta Soroluzeko lantegi txiki batzuetako diru-kontuen ardura ere izan zuen. Garai hartan bankuek nola egiten zuten lan azaltzen du. Gero, Bergarako Comesa lantegiko bulegoan egin zuen lan. Bergarako Irala zine aretoa Anjelek ireki zuen, eta harrezkero bertako Novedades zinea eta inguruko herrietako beste zine areto batzuk ere kudeatu zituen. Bergarako kontu asko aipatzen ditu: Bergarako zapatagintza lantegiak, Bergarako pilotalekua ospetsua zenean erakartzen zuen jendea, etab. Marce Albeniz nafarrarekin ezkondu zen eta seme-alaba bi izan zituzten.

Zintak

BER-279

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-03
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

BER-280

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-03

- **Iraupena:** 39 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Umetan Antzuolara; gerra sasoian Heredian

- **Erref:** BER-279/002
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aita bergararra zuen eta ama Antzuolakoa. Bera Bergaran jaio zen, baina 3 urte zituela, Antzuolara joan ziren, amandrearen etxera, aita lan-kontuengatik denbora asko kanpoan pasatzen zuelako. Gerraren hasierak Heredian (Araba) harrapatu zuen.</p>

2. Maristekin, marianistekin eta dominikoekin eskolan

- **Erref:** BER-279/004
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Eskolan Antzuolan ibili zen, maristetan. Gero, Bergaran, lehenengo marianistekin ibili zen eta batxilerra seminarioan amaitu zuen dominikoekin. Ordena bakoitzeko irakasleen inguruko kontuak.</p>

3. Eskola guztiak gaztelaniaz jaso zituen

- **Erref:** BER-279/005
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:04:53. **Bukatu:** 00:06:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Hiru urterekin hasi zen eskolan Antzuolan maistra batekin. Gero, lau urterekin, maristekin. Gerra sasoian erre egin zuten komentua eta, horregatik, gerra ostean Bergaran jarraitu zituen ikasketak. Eskola guztiak gaztelaniaz jaso izan dituela dio, bai Antzuolan eta bai Bergaran. Hala ere, dotrina euskaraz. Garai hartan ba omen zen ikastola bat ere San Pedro kalean, Bergaran.</p>

4. Antzuolako Batzokia; kalean euskaraz, eskolan gaztelaniaz

- **Erref:** BER-279/007
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:07:37. **Bukatu:** 00:08:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

<p>Bere aitona Antzuolako lehenengo alkate nazionalista izan zen. Antzuolako Batzokia. Txikia izan arren, jende asko biltzen zen, antzerkia ikusteko. Kalean denek euskaraz egin arren, eskolak gaztelaniaz izaten ziren. Maistrak dotrina bakarrik ematen zien euskaraz. Maistraren senarra, Ramirez, postari moduan etorri zen Arabatik.</p>

5. Meza-laguntzaile Antzuolan eta Bergaran

- **Erref:** BER-279/011
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:10:29. **Bukatu:** 00:12:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Meza-laguntzaile moduan ibili zen mutikotan Antzuolan. Hiru pezeta ordaintzen zizkieten hilean. Gero, Bergaran, bost urtez lagundu zion osabari, goizeko seietako mezan. Garai hartan, auzoetako abadeak ere kontatuz gero, 25 abade inguru egongo zirela Bergaran dio. Antzuolan bost zeuden. Uzarragako parrokia, Antzuolako zaharrena, ezaguna izan da.</p>

6. Elizako "langileak": abadeak, meza-laguntzaileak, sakristaua...

- **Erref:** BER-279/014
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:13:53. **Bukatu:** 00:15:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Meza-laguntzaile lanak Antzuolan: meza nagusia, bezperak, bederatziurrenak... Ordu asko sartzen zituzten. Parrokian hiru abade, hiru meza-laguntzaile eta sakristaua egoten ziren. Bergaran bi meza-laguntzaile, sakristaua, beata eta zazpi abade zeuden parrokian.</p>

7. Aitak Argentinatik ekarritako urrezko kazola

- **Erref:** BER-279/016
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:16:49. **Bukatu:** 00:17:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Bizitokia diasporan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Aita Argentinan egona zen, Buenos Aires ondoan. 1914 inguruan urrezko kazola bat erosi ei zuen 25.000 pezeta inguru ordainduta, anaiari oparitzeko. Kazola hura, osaba abadea hil zenean, elizaren esku geratu zen.</p>

8. Hegazkin italiar bat jausi zen Antzuolan

- **Erref:** BER-279/020
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:20:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra sasoian hegazkin italiar bat erori zen Antzuolan. Anjel ordurako Antzuolan zegoen, Herediatik bueltatuta. 1937a izango zela dio. Hegazkinaren pieza bat gordeta eduki zuen. Italiar asko ibili zen Antzuolan, konpainia bat bertan egon zelako.</p>

9. Bergaran herri eskolan, marianistetan eta dominikoetan

- **Erref:** BER-279/023
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:21:42. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Hamar urte betetzeko zegoela itzuli zen Bergarara. Lehenengo, herriko eskolan ibili zen urtebetez. Gero marianistekin eta dominikoekin ibili zen. Batxilerra egitera dominikoengana joan zen bera, baina beste batzuk San Viatorrera joan ziren. Bi urtez-edo egon ziren San Viatorrekoak Bergaran.</p>

10. 16 urterekin “Banco de Vizcaya”ra lanera

- **Erref:** BER-279/027
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:24:36. **Bukatu:** 00:25:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:

16 urterekin "Banco de Vizcaya"n hasi zen lanean. Bergaran sei hilabete egin zituen eta gero Soraluzen egon zen 24 urte ingurura arte. 300 pezeta irabazten zituen hasieran. 16 urterako mutil eginak zirela dio.

11. 16 urterekin Bergarako futbol taldean

- **Erref:** BER-279/028
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:25:44. **Bukatu:** 00:26:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

16 urterekin Bergarako futbol taldean jokatzen zuen. Lehenengo aldiz jokatu zuenean, botei guata ipini behar izan omen zien puntan, handiegi zituelako. Ondik atiko Alok amendi taldean jokatzen zuen jokalaria bat aipatzen du.

12. Soraluzen 4.000 langile eta hiru banketxe 1944an

- **Erref:** BER-279/029
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:26:45. **Bukatu:** 00:28:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Anjel bankuan lanean hasi zenean, 1944an, dirua eskuan gutxi erabiltzen zen, baina soldatak ordaintzeko bai. Garai hartan Soraluzeko lantegietan 4.000 pertsona inguruk lan egiten zuten. Antzuolatik trena beteta joaten zen eta Bergaratik ere jende asko. Osintxun orduan ez zegoen lantegirik ia eta Bergaran ehungintzakoak bakarrik. Hiru banketxe zeuden Soraluzen: "Banco de Vizcaya", "Banco Guipuzcoano" eta "Banco San Sebastiá". Aurrezki kutxa modukoa Aldundiak eramaten zuen.

13. Miloiak maletan hartuta, trenean lasai

- **Erref:** BER-279/030
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:28:41. **Bukatu:** 00:30:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:

Soraluzen 1944an 4.000 langile inguru zeudenez, diru asko mugitzen zuten bankuan. Donostiara joan-etorria egin izan zuen diru bila trenez eta batzuetan bi miloi edo gehiago ekartzen zituen maletan, lasai asko. Urtean 30 bat aldiz joaten zen. Banketxean hiru langile eta zuzendaria egoten ziren.

14. Langile arruntarentzat oso zaila dirua aurrezte

- **Erref:** BER-279/031
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:30:28. **Bukatu:** 00:31:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Berak bankuan lan egin zuen sasoian, bazegoen dirua aurrezten zuen jendea, baina ez asko. Komertzioaren bat edo zerbait zuen jendea izaten zen. Langile arruntarentzat oso zaila zen aurrezte. Gainera, normalean seme-alaba asko izaten zituzten etxean mantentzeko.</p>

15. Etxeen errenta soldataren arabera

- **Erref:** BER-279/032
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:31:36. **Bukatu:** 00:33:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Garai batean etxeen errenta bost ogerleko ordaintzen zela dio. Beraiek, 1938an etorri zirenean, 300 pezeta ordaintzen zuten. Irabazi ere halaxe egiten zen. Berak 300 pezeta irabazten zituen 16 urterekin, bankuan hasi zenean, eta 1953an, hango lana utzi zuenean, 1.200. Handik urte batzuetara Comesa lantegian sartu zenean zenbat irabazten zuen.</p>

16. Soraluzeko Gallastegi lantegiak bizikleta ematen zien langileei

- **Erref:** BER-279/033
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:33:10. **Bukatu:** 00:34:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Garai batean jende asko joaten zen bizikletaz lanera. Soraluzeko Gallastegi lantegian bizikletak egiten zituzten eta langile berriren bat hasten zenean, bizikleta ematen zioten. Gero, haren balioa soldatatik kendu. Bizikleta ez zuten denek edukitzen.</p>

17. Zapatagintza lantegiak Bergaran

- **Erref:** BER-279/035
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:35:32. **Bukatu:** 00:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

Laburpena:

Bergaran ehungintza lantegiak ziren nagusi, baina zapatagintzako 5 lantegi ere bazeuden gutxienez. Horietako bi lantegi komentuetarako oinetakoak egitera dedikatzen ei ziren. Zapatila zuriak egiten ziren asko.

18. Bergarako zapatagintza lantegiak

- **Erref:** BER-279/037
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:36:38. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

Laburpena:

Begarako zapatagintza lantegiak: Lazpiur, Amenabar, Jauregi, Kintana, Larrañaga, Igartua... Ez ziren lantegi txikiak; Lazpiurrenean, esaterako, 30 langile inguru ibiliko zirela dio. Gehiena kanporako egiten zuten. Larrua Antzuolatik ekartzen zuten edo, bestela, Agurainen ere bazegoen beste fabrika bat.

19. Hainbat herritako zinema aretoetako arduradun

- **Erref:** BER-279/040
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:39:24. **Bukatu:** 00:40:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Begarako Irala eta Novedades zinemak berak zabaldu zituen. Ondatiko Santa Ana ere bai, 1985ean, eta baita Ordiziako antzokia ere. Zinema kontuetan lan egin zuen eta sasoi batean hainbat herritako aretoen ardura berak izan zuen.

20. Gaztelaniarekin txarto; ikasketekin jarraitzeko dirurik ez

- **Erref:** BER-279/044
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:44:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Mutikotan Bergarara joan zenean, gaztelaniarekin ibiltzen zen txarto ahozko azterketetan. Errezoak ere euskaraz egiten zituen, gaztelaniaz ez zelako moldatzen. Izan ere, dotrina izan zen euskaraz ikasi zuen gauza bakarra. Marianistekin lehenengo maila eta gerokoak dominikoekin egin

zituen. Ikasketa amaierako azterketa egitera Madrilera edo Zaragozara joan behar izaten zen eta, euren etxean dirurik ez zegoenez, lanean hasi behar. Unibertsitate mailako ikasketak egiten zituzten bakarrak dirua zuten familietakoak izaten ziren.</p>

21. Irala zinema-aretoa; zerk egin die kalte zinemei?

- **Erref:** BER-279/045
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:44:36. **Bukatu:** 00:46:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>1970ean ireki zuen Irala zinema Bergaran. 1975ean aurretik 10 urtez itxita egon zen Novedades aretoa ireki zuen. Irala irekitzean, aurretik Bergaran zegoen zinema-aretoa itxi egin zen, jende guztia Iralara joaten zelako. 1800 metroko pantaila zuen. Pena handia hartu zuen itxi zenean. Bere ustez kotxeek egin zioten kalte handia zinemari, jendea kanpora joaten hasi zelako. Beste faktore batzuk: bideoak, telebista...</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com